



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko otsailaren 8a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ubidearen bigarren fasea osorik eta fase bakar batean egitearen aldeko hautua egin dezan. María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abuztuaren 20ko 2109/2012 Ebazpena indargabetu dezan. Haren bidez, lanaldiaren berariazko banaketa baimendu zitzaien Hezkuntza Departamentuari atxikita begirale, fisioterapeuta eta OLT-EUD lanpostuetan aritzen diren eta irakasle ez diren langileei. EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txistuaren irakaskuntza sar dezan Zaraitzu Ibarreko, Zangozako, Irunberriko, Lizarrako, Andosillako eta Tuterako musika-eskoletan. Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emergentziazko laguntzak eta aparteko laguntzak eskuratzeko baldintzak malgutu ditzan. mozioa erretiratzea (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen baitio aplikatu ditzala genero-indarkeriaren aurkako estatu-itunean emakumeen genitalen ebaketari buruz jasotako neurriak. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Parlamentuak babesa eta elkartasuna adierazten baitizkio Bartzelonako Udalarari sexu- eta genero-aniztasunari arreta emateko udal zerbitzuak jasandako eraso dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Hezkuntza-sisteman 2017-2018 ikasturtean izandako osasun-bajei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Selektibitatean matrikulatutako ikasleekin alderatuta unibertsitatean sartzeko ebaluazioa gainditzaren duten ikasleen portzentaje jaisteari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, nazioarteko ARCO 2019 arte-azokari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroak FITUR 2019 azokan parte hartzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, landa eremuetako hiri barruko bideetan abiadura moteltzeko elementuei buruzko araudia aldatzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (10. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Ponentzia, enpresa pribatuen eta administrazio publikoaren artean zerbitzuak eta lanak kanpoan nahiz barruan kontratatzeke prozesuetan jarraitu beharreko zuzenbidezko prozedurak aztertzeke, ukitutako langileen eskubideak babeste aldera. Ordezkariek izendatzeko epea (11. or.).
- Sodena enpresa publikoaren jarduketeki buruzko ikerketa batzorde. Konklusioak onesteko epea luzatzea (12. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 1/2019 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (13. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ubidearen bigarren fasea osorik eta fase bakar batean egitearen aldeko hautua egin dezan.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Ubidearen bigarren fasea osorik eta fase bakar batean egitearen aldeko hautua egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen María Carmen Segura Moreno andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeke aukera teknikoak bukatuta daude eta orain modu onena erabaki behar da Nafarroako Erriberak izan dezan edateko ura, kalitatezkoa, bai eta behar den ur kantitatea ere nekazaritza-elikagaien

enpresak hornitzeko eta aurreikusi diren 21.500 hektareak ureztatzeko.

Egun argi dago obran lurpeko bi hodi egonen direla, baina horiek eraikitzeke bi aukera daude: batera egitea edo bi fasetan. Bi fasetan egiteak ekarriko luke hasiera batean bakarrik 10.000 hektarea ureztatzea, aurreikusita daudenetatik. Obraren tamainari eta iraupenari begira, fase batetik bestera dagoen alde ekonomikoa ez da esanguratsua, baina aurreikusitako 21.500 hektareak ureztatu ala ez, orduan esanguratsua izan daiteke.

Gutziz ezinbestekotzat jotzen dugu bi hodiak aldi berean egitea. Gure ustez, behin definituta bigarren faserako proiektua, bi fasetan egitea Erriberarendako galga bat izanen litzateke, eta agian luze geroratuko ere, beharbada osorik ezin egiteraino.

Unea iritsi da, Erriberarekin konpromiso handiena edukitzeko.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Apustua egin dezan Nafarroako Ubidearen bigarren fasea osorik eta fase bakar batean egitearen alde.

2. Canasaren Administrazio Kontseiluan defenda dezan lurpeko bi hodiak aldi berean egitea kontuan hartzen duen aukera.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: María Carmen Segura Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da abuztuaren 20ko 2109/2012 Ebazpena indargabetu dezan. Haren bidez, lanaldiaren berriazko banaketa baimendu zitzaizen Hezkuntza Departamentuari atxikita begirale, fisioterapeuta eta OLT-EUD lanpostuetan aritzen diren eta irakasle ez diren langileei.

EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita abuztuaren 20ko 2109/2012 Ebazpena indargabetu dezan. Haren bidez, lanaldiaren berriazko banaketa baimendu zitzaizen Hezkuntza Departamentuari atxikita begirale, fisioterapeuta eta OLT-EUD lanpostuetan aritzen diren eta irakasle ez diren langileei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Funtzio Publiko, Barneko eta Justiziako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Begiraleen kolektiboak badu erantzukizun handi bat, Nafarroako ikastetxeetan zuzeneko arreta ematea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei. Kolektibo oso feminizatua da, gehienetan aldi baterako kontratuekin lan egiten duena (kontratuen % 70etik gora) eta lanaldi partzialean. Lanaldi horiek, gainera, askotan zatituak dira, halako moduz non begiraleak, lanaldi partziala

badute ere, eskolaldi osoan geratzen diren ikastetxean.

Lanaldi osoan lan egiten dutenek berrogeita hiru ordu eta erdiko lan astea dute ikasturtean zehar. Asteko lau egunetan bederatzi orduko lanaldia dute. Haien eginkizuna da arreta ematea zenbait arazo –mugikortasuna, autismoa, jokabide arazoak eta gisakoak, batzutan bizirako arriskuarrekin– dituzten adingabeei, zeinek laguntza jarraitu eta banakatua behar duten. Horiek horrela, haien lan baldintzak hobeki egokitu behar dira.

Nafarroako Gobernuaren abuztuaren 20ko 2109/2012 Ebazpenean begiraleen lanaldia arautzen da, baina ez da kontuan hartzen inongo atsedenek, salbu eta berrogeita bost minutukoa, bazkatzeko. Era horretan, bederatzi orduko lanaldiak eraten dira, zeinetan, bazkaltzeko berrogeita bost minutuak salbu, arreta ematen dieten hezkuntza-premia bereziak dituzten adingabeei, egunean zortzi ordu eta laurdenetan.

Kolektibo horrek urteak eman ditu hobekuntzak eskatzen bere lan baldintzetan, besteak beste, 2109/2012 Ebazpena indargabetzea, aplikatzen diren ordutegi amaigabeen sorburua baita. Eguneko lanaldia zuzeneko arretako 9 ordukoa izanik, eta kontuan harturik premia bereziak dituzten ikasleekin lan egiten dutela, ezinezkoa da kalitateko arreta ematea. Lan horretan inplikazio emozionalak, estresaren mailak eta erantzukizunaren graduak duten eragina erabakigarria da eta metatu egiten da, baina faktore horiek ez dira kontuan hartzen arretaren kalitateari begira.

Horrelako baldintzetan ezin da bete irailaren 4ko 455/2013 Ebazpena, Nafarroako ikastetxe publikoetako begiraleen lan jarduketak arautzen dituen. Ebazpenak langile horien eginkizunak zehazten ditu. Ezinezkoa da irakasleekin, orientatzaileekin, fisioterapeutekin edo logopedekin koordinatzea. Hartara, zaila da elkarrekin lan egitea adingabeen benetako integrazioa lortzeko, haien eginkizunetan jasotzen den moduan, ezinezkoa da lankidetzan aritzea esleitutako ikasleen

autonomia pertsonalerako eta gizarteratzerako programen programazioan, exekuzioan, jarraipenean eta ebaluazioan, eta ezinezkoa da familiei orientazioa ematea, tutoreekin eta gainerako profesionalekin elkarlanean, ikastetxetik kanpo sustatze aldera adingabeen autonomia pertsonalaren eta sozialaren maila.

Errealitatea da begiraleek lanaldia osorik eman behar dutela premia berezia dituzten ikasleei arreta ematen (onenean ere astean koordinazioko saio batekin).

Baldintzak arautzeak, duinagoak eta gizatiarra-
goak izan daitezten, ahalbidetuko du 2013ko dekretuan ikastetxeak eta familia koordinatzeari dagokionez xedatzen dena bete ahal izatea. Izan ere, autonomia-erkidego gehienetan hori da sektoreko langileek duten errealitate positiboa.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-
a premiatzen du abuztuaren 20ko 2109/2012 Ebazpena bi hilabeteko epean indargabetu dezan. Haren bidez, lanaldiaren berariazko banaketa bai-

mendu zitzaien Hezkuntza Departamentuari atxikitako begirale, fisioterapeuta eta OLT-EUD lanpostuetan aritzen diren eta irakasle ez diren langileei. Orobat, Nafarroako Gobernuak premiatzen du bi hilabeteko epean beste ebazpen bat aurkez dezan, honako hauek arautzeko:

– Lanaldi bat, eguneko 8 ordukoa, gehienez ere.

– Eguneroko atsedernaldi bat, 30 minutukoa, langileen atsedenerako, 10:00etatik 12:00etara bitartean eta benetako lan gisa zenbatuko dena.

– Astean 25 orduetik goiti ez egitea ikasleenda-
ko zuzeneko arretan eskola-orduetan.

– Astean 8 ordu eta 45 minutu ematea koordi-
nazioko zereginen eta bazkatzeko etenen artean.

– Ikaslearen jarraipenerako denbora ematea, gehienez ere 6 ordu eta 15 minutukoa.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentariak: Esther Korres Bengoe-
txea, Carlos Couso Chamarro, Inmaculada Jurío
Macaya eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da txistuaren irakaskuntza sar dezan Zaraitzu Ibarreko, Zangozako, Irunberriko, Lizarrako, Andosillako eta Tuterako musika-eskoletan.

LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita txistuaren irakaskuntza sar dezan Zaraitzu Ibarreko, Zangozako, Irunberriko, Lizarrako, Andosillako eta Tuterako musika-eskoletan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Orain Bai taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Txistua Nafarroan dugun ondare kulturalaren zati bat da. Erdi Aroan ditu erroak eta gaur egun ere gure erkidegoan era guztietako ekitaldi, eszenatoki eta giroetan agertzen da.

Europar aitzindaria da hiru zuloko moko-txirulen artean; ez dago tresna familia horretan beste txirularik, antzeko elkarte-ahalmena, garen maila eta atxikimendu soziala edukitzera iristen denik.

Ikusirik bere errotze sozial handia eta duen izaera poliedrikoa, protokolutik dantzetara, musika sinfonikoa edo egungo metodologiako material

berritzaileenak barne, babes eta sustapen berezia behar duen tresna dugu, txistuak, gure kulturaren eta historiaren berezko tresna gisa, bizirik iraun dezan.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, txistuaren irakaskuntza sar

dezan, 2019-2020 ikasturtetik aurrera, Zaraitzu Ibarreko, Zangozako, Irunberriko, Lizarrako, Andosillako eta Tuterako musika-eskoletan, Nafarroako Gobernuak diruz lagunduta, irakasle tituludunekin eta musikako gradua dutenekin.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emergentziazko laguntzak eta aparteko laguntzak eskuratzeko baldintzak malgutu ditzan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Mikel Buil García jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu duela. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen emergentziazko laguntzak eta aparteko laguntzak eskuratzeko baldintzak malgu-

tu zitzan, eta 2018ko apirilaren 5eko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen baitio aplikatu ditzala genero-indarkeriaren aurkako estatu-itunean emakumeen genitalen ebaketari buruz jasotako neurriak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko otsailaren 4an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bere eskumenen arabera aplikatu ditzala gure erkidegoan genero-indarkeriaren aurkako estatu-itunean emakumeen genitalen ebaketari buruz jasotako neurriak.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du praktika hori arbuiatzen duela eta eskatzen du giza eskubideen aurkakotzat har dadila.

3. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna eta babesa adierazten die mundu osoan emakumeen genitalen ebaketaren aurka borrokatzen diren pertsona eta erakundeei".

Iruñean, 2019ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Parlamentuak babesa eta elkartasuna adierazten baitizkie Bartzelonako Udalari sexu- eta genero-aniztasunari arreta emateko udal zerbitzuak jasandako eraso dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko otsailaren 4an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak:

1. Babesa eta elkartasuna adierazten dizkie Bartzelonako Udalari eta sexu- eta genero-aniztasunaren arloko udal zerbitzu hau sortzeko lan egin duten hiriko LGTBI+ taldeei.

2. Eraso horren aurka herritarrek emandako erantzuna goren du.

3. Lanean jarraitzeko konpromisoa berresten du LGTBI+ politika publikoak bultzatzeko eta herritarrei zerbitzuak eta baliabideak eskaintzeko, hiri libre eta anitz bat sustatze aldera".

Iruñean, 2019ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Hezkuntza-sisteman 2017-2018 ikasturtean izandako osasun-bajei buruzkoa.*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Hezkuntza-sisteman 2017-2018 ikasturtean izandako osasun-bajei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako hezkuntza-sistemaren 2017-2018 ikasturteari buruzko txostena ikusita,

1.- Hezkuntza Departamentuak nola azaltzen du ikastetxe publikoetako irakasleen osasun-bajak igo izana azken urteotan? Nola azaltzen du 2017-2018 ikasturtean gorako joera hori jaitsi ez izana?

2.- Hezkuntza Departamentuak nola azaltzen du ikastetxe publikoetako irakasle ez diren langileen osasun-bajak igo izana azken urteotan? Nola azaltzen du 2017-2018 ikasturtean gorako joera hori jaitsi ez izana?

3.- Nola azaltzen du aurreko ikasturtearen aldean 2017-2018 ikasturtean igo izana?

4.- Auzia aztertu al du sindikatuekin mahai sektorialean?

5.- Auzia aztertu al da unibertsitateaz kanpoko irakasleen Segurtasun eta Osasun Batzordean?

6.- Auzia aztertu al da irakasle ez diren langileen ordezkari sindikalekin?

Corellan, 2019ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Selektibitatean matrikulatutako ikasleekin alderatuta unibertsitatean sartzeko ebaluazioa gainditzen duten ikasleen portzentaje jaisteari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Selektibitatean matrikulatutako ikasleekin alderatuta unibertsitatean sartzeko ebaluazioa gainditzen duten ikasleen portzentaje jaisteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako hezkuntza-sistemaren 2017-2018 ikasturteari buruzko txostena ikusita,

Hezkuntza Departamentuak nola azaltzen du Selektibitatean matrikulatutako ikasleekin alderatuta unibertsitatean sartzeko ebaluazioa gainditzen duten ikasleen portzentajea jaitsi izana ikasturte horretan, aurreko ikasturteekin alderatuta?

Corellan, 2019ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, nazioarteko ARCO 2019 arte-azokari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, nazioarteko ARCO 2019 arte-azokari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

ARCO 2019 arte azokari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

– Ea Nafarroako Gobernuak lan egiteko asmorik duen azoka horretan parte hartzen duen arte-galeria edo -zentroren batekin.

– Nafarroako Gobernuak nazioarteko nahiz estatuko zer arte-azokatan parte hartzen duen edo lan egiten duen.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroak FITUR 2019 azokan parte hartzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroak FITUR 2019 azokan parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroak FITUR 2019 azokan parte hartzeari buruz honako hau jakin nahi dut:

Nafarroaren parte-hartzeari buruzko balorazioa, bisitei buruzko datuak, hitzartutako operazioak eta azokara bideratutako baliabide ekonomikoaren zenbatespena.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, landa eremuetako hiri barruko bideetan abiadura moteltzeko elementuei buruzko araudia aldatzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, landa eremuetako hiri barruko bideetan abiadura moteltzeko elementuei buruzko araudia aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Landa eremuetako hiri barruko bideetan abiadura moteltzeko "asto-bizkarrak" izenekoei eta gisako beste elementuei buruzko araudia aldatzeari buruzko mozioa betetzeari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

Zertan da mozio horretan onetsitakoa beteaztea?

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ponentzia, enpresa pribatuen eta administrazio publikoaren artean zerbitzuak eta lanak kanpoan nahiz barruan kontratatzeko prozesuetan jarraitu beharreko zuzenbidezko prozedurak aztertzeo, ukitutako langileen eskubideak babeste aldera.

ORDEZKARIAK IZENDATZEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak 2019ko urtarrilaren 30ean onetsi zuen, Erregelamenduaren 55.2 artikularekin bat, ponentzia bat eratzea, enpresa pribatuen eta administrazio publikoaren artean zerbitzuak eta lanak kanpoan nahiz barruan kontratatzeko prozesuetan jarraitu beharreko zuzenbidezko prozedurak aztertzeo, ukitutako langileen eskubideak babeste aldera, eta Legebiltzarreko Mahaiari eskatu zion xedatu beharrekoa xeda zezala aipatu ponentziaren osaerari eta funtzionamenduari buruz.

Ponentzia eratu eta lanean hasi ahal izan dadin, ondokoa ERABAKI DA:

1. Epe bat ematea, 2019ko otsailaren 11ko 09:30ak bitartekoa, talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak aipatu ponentziarako bere ordezkaria izenda dezan,

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeko kideen artetik, Legebiltzarreko Mahaiari idazki bat zuzenduta. Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko talde parlamentarioko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari haren ordezkari jardunen dena.

2. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak erabakiko du ponentzia zein egunetan eratu eta lanean hasiko den.

3. Ponentzia eratuta, haren kideek barne funtzionamenduko arauak ezarriko dituzte eta lanean berri emanen diote Legebiltzarreko Mahaiari.

4. Erabaki hau talde parlamentarioetako eledunei jakinaraztea.

5. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Sodena enpresa publikoaren jarduketei buruzko ikerketa batzorde.

KONKLUSIOAK ONESTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Sodena enpresa publikoaren jarduketei buruzko ikerketa batzordeak 2019ko urtarrilaren 30eko erabaki bat igorri dio Legebiltzarreko Mahaiari, zeinaren bidez eskatzen baitu batzordearen konklusioak onesteko epea luzatzea.

Erregelamenduko 62. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honakoa erabakitzen da:

1. Sodena enpresa publikoaren jarduketei buruzko ikerketa batzordeak bere lanak, konklusioen eztabaida eta bozketa barne, bukatzeko epea 2019ko martxoaren 20ra arte luzatzea.

2. Erabaki hau Sodena enpresa publikoaren jarduketei buruzko ikerketa batzordeko lehendakariari eta kideei jakinaraztea, bai eta batzordeko legelari-idazkariari ere.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

1/2019 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak honako legegintzako foru dekretu honen ziurtagiria igorri du: “1/2019 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena”.

Kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea aipatu legegintzako foru dekretuaren berri izan duela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**1/2019 Legegintzako Foru Dekretua,
urtarrilaren 30ekoa,
Tributu Harmonizazioari buruzkoa,
Balio Erantsiaren gaineko Zergari
buruzko abenduaren 30eko 19/1992
Foru Legea aldatzen duena**

ZIOEN AZALPENA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu-araubidea Estatuko tributu araubide orokorarekin harmonizatzeke irizpideak arautzen dira.

Esparru horretan, lege testu horren 32. artikulua xedatzen duenez, Nafarroak, balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan bere tributu-ahalmena erabiliz, Estatuan unean-unean indarra duten oinarritzko printzipio eta arau substantibo eta formal berberak aplikatu behar ditu; nolana ere, aitorpena eta sarrerak egiteko, bere ereduak onesten ahalko ditu.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 54.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, baldin tributu-araubide erkideko aldaketa batek behartzen badu Estatuan indarra duten arau substantibo eta formal berberak Foru Komunitatean aplikatzera Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak eman ditzake tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Aipatu 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren xedapen horiei, aipatu legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnean, “tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu” izena emanen zaie.

Arte sorkuntzari eta zinematografiari buruzko presako neurriak onesten dituen abenduaren 28ko 26/2018 Errege Lege Dekretuak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatzen du, arte sorkuntzaren lan-baldintzak hobetzeko asmoz, halako moduan non bermatuko baitute ukitutako kolektiboek (aktoreak, idazleak, zinemagileak, konpositoreak, dantzariak eta abar) beren jarduera modu egokian gauzatzen dutela, zerga horren arloan berariazko tratamendua izatea jasotzen duen ikuspegi batekin.

Horrenbestez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Lege hori aldatzen da, pertsona fisikoak diren antzezle, artista, zuzendari eta teknikariek ematen dituzten

zerbitzuei aplikatu beharreko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zerga-tasari dagokionez, pertsona fisikoek antzezle, artista, zuzendari eta teknikari gisa ikuskizun aretoetan erakuts daitezkeen zinema filmen produkzio-etxeei eta kultur lan eta ikuskizunen (antzezlanak eta musikalak) antolatzaileriei ematen dizkieten zerbitzuei tasa murriztua aplikatzeko.

Horrela, kultur industriaren funtsezko zerbitzu horiei zergaren tasa murriztua aplikatuko zaie berriro ere; izan ere, 2012. urtetik %21eko zerga-tasa orokorrean ordaintzen zituzten zergak.

Horrenbestez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu denez, beharrezkoa da Tributu Harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu hau ematea Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko, zerga horri dagokionez, Foru Komunitatean aplikatu daitezkeen Estatuan indarra duten arau substantibo eta formal berberak.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak 2019ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran hartutako Erabakiarekin bat,

DEKRETATU DU:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzea.

2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 37.Bat.2 artikuluan 13. atal berria gehitzen da, eta honela idatzita agertuko da:

“13. Pertsona fisikoak diren antzezle, artista, zuzendari eta teknikariek ikuskizun aretoetan erakuts daitezkeen zinema filmen produkzio-etxeei eta antzezlanak eta musikalak antolatzen dituztenei ematen dizkietenak”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu Harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, ezartzen dituen ondorioekin.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 30ean

Nafarroako Gobernuako lehendakaria: Uxue Barkos Berruezo

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

